



2023/2024 denboraldia

19. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN OHOREZKO ERREGIONAL MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

- 1 GOIERRI GORRI FK
- 2 MARIÑO C.D.
- 3 ZUMAIAKO F.T.
- 4 LAGUN ONAK C.D.
- 5 ANTIGUOKO K.E.
- 6 LEINTZ ARIZMENDI K.E.
- 7 TOURING KE
- 8 TOLOSA C.F. "B"
- 9 UROLA K.E.
- 10 INTXAURDI K.E.
- 11 BETI GAZTE K.J.K.E.
- 12 OSTADAR S.K.T.
- 13 AMAIKAK BAT MUTRIKU K.E.
- 14 HERNANI C.D. "B"
- 15 OIARTZUN KE "C"
- 16 ELGOIBAR C.D.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa **16 taldek** osatzen dute multzo bakarrean. Fase bakarra jokatu da: puntuen bidez eta bi itzuletara (30 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.



Euskal Ligara igoko da goragoko mailako beste batekin mendekotasun- edo filialtasun-harremanik ez duen lehen sailkatua, eta hurrengoak Araba eta Bizkaiko taldeekin jokatu du hiruko formatuan, igoerako plaza hutsak ezartzeko, halakorik balego.

Azken hiru sailkatuak Emakumezkoen Gorengo Mailara jaitsiko dira.

Era berean, kategoria galduko dute, nahiz eta postu horietan ez egon, azken sailkapenean jaitsi diren talde horien aurretik geratu direnak, federazio honetako taldeen kasuan gertatzen diren goragoko mailetako jaitsieren ondorioz, baldin eta egoera horrek aipatutako kategorian klub gehiegi egotea badakar.

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etatik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

Partidetako arbitroen karteldegia orekatzeko asmoz, txandaka-txandaka, Ohorezko Erregional Mailako (gizonezkoena eta emakumezkoena) eta Gorengo taldeen (gizonezkoena) partida guztiak igandera eramango dira. Kategoria horiek, hain zuzen, marrazainak behar dituztenak dira.

Nahitaez igandera lekualdatuko diren partida horiek jokatzeko ordu tarte bat ezarri da, hain zuzen ere, distantzia 50 km-tik gorakoa denerako ezarrita dagoen berbera: 11:00etatik 17:30era.

Emakumezkoen Ohorezko Mailari dagozkion igandeak honako hauek dira:

- 02. jardunaldia: 2023-10-01
- 06. jardunaldia: 2023-10-29
- 10. jardunaldia: 2023-11-26
- 15. jardunaldia: 2024-01-21
- 19. jardunaldia: 2024-02-25
- 23. jardunaldia: 2024-03-24
- 27. Jardunaldia: 2024-05-05

Klub bakoitzak aurrez aipaturiko jardunaldi bat aldatzeko aukera izango du, jardunaldi horretan igandea ez den beste egun batean jokatzeko, beti ere, gutxienez jardunaldi hori jokatu baina 15 egun lehenago abisatzen bada.



5. BALOI BATERATUA

2023-2024 denboralditik aurrera Gizonezkoen Ohorezko Erregional mailan, derrigorrezkoa izango da **ADIDAS TIRO LEAGUE** baloia erabiltzea.

6. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

7. XEDAPEN OROKORRA

Bere garaian Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Orokorrean honako gai hauei buruz ezarritako akordioari eusten zaio:

- 1) Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailan "koltxoi" kategoriaren irizpideari eustea.
- 2) Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailan sortzen diren plaza hutsak txandaka betetzea, hurrenkera honetan:
 - a) Emakumezkoen Gorengo Mailatik igoera lehenetsiz. Eskubide horri uko eginez gero, b) puntuarekin jarraituko da.
 - b) Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailatik jaitzitako ondoen sailkatu den taldea ez jaistea. Eskubide horri uko eginez gero, hurrengo puntuarekin jarraituko da.
 - c) Eta horrela, hurrenez hurren.

8. LIZENTZIAK

Inskribatutako taldeek gehienez 25 lizentzia izan ahalko dituzte, "FA", "FJ" eta "FF" lizentzietan dagozkienak; azken kasu horretan, **15 urte beteta eduki beharko dira. Lehen taldean izena emanda** dauden "FJ" eta "FF" lizentziadun jokalariek ezingo dute beren lizentziari dagokion taldean jokatu, hau da, jubeniletan edo kadeteetan.



9. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2023ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatuta, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzeko, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2023ko irailaren 22a

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General